KONTSUMO ARDURATSUAREN SUSTAPENA ORTUELLAKO ESKOLA AGENDA 2030AREN ESPARRUAN

Posted on 30/04/2026 by Naider

Category: Albistea
Tags: 2030 Agenda, Kontsumo arduratsua, Partaidetza prozesuak

Apirilaren 30ean, Ortuellako Eskola Agenda 2030ren baitan, arrakasta handiz ospatu egin da **bigarren eskuko azoka** Otxartaga plazan, herriko ikastetxe ezberdinek parte hartu duten **prozesu parte-hartzaile** baten emaitza gisa. **Aurretik egindako hiru tailerretan** zehar, ikasleek elkarlanean aritu dira ekimen hau antolatzeko.

Saio horietan, **Ortuellako ikasleek** lantalde desberdinetan lan egin dute, azoka aurrera eramateko beharrezkoak ziren **zereginak euren artean banatuz**. Besteak beste, **herritarrek emandako materialak** —arropa, jostailuak, liburuak eta bestelako objektuak— jasotzea eta sailkatzea, prezioak adostea, diruaren kudeaketa egitea, eta postuen muntaketa zein desmuntaketa antolatzea izan dira landutako eginkizunak.

Azoka, herriko jaien hasierarekin batera ospatua, **arrakasta handia izan du.** Ikasleek arduraz eta antolaketa handiz prestatu dituzte euren mahaiak, eta talde-lanerako gaitasun handia erakutsi dute. Gainera, **herritarren parte-hartzea nabarmena izan da**, jasotako material kopuru handiak bizia eman baitio **kontsumo arduratsuarekin lotutako ekimen honi (12. GJH).**

Egun honetan lortutako dirua **Agua de Coco** erakundera bideratuko da**, elkartasunari ekarpena** eginez; soberan geratutako arropa, berriz, **Koopera** erakundeari emango zaio **berrerabiltzeko**.

Amaitzeko, ekimena antolatzen aritu diren ikasleek merezitako hamaiketakoa izan dute, egindako lanaren aitortza gisa.

Esperientzia honek erakusten du **elkarlanean eta helburu komun batekin arituz gero, emaitzak oso positiboak izan daitezkeela.** Kontsumo arduratsua sustatzeaz gain, elkartasuna, konpromisoa eta parte-hartzea bezalako balioak indartzen dituen ekimena izan da.

Tel: 94 664 02 00
digitalizacion@ortuella.eus

BIGARREN ESKUKO AZOKA

APIRILAK 30

APIRILAK 30

10:00 - 12:00
(10etatik 12ak arte)

OTXARTAGA PLAZAN

JOSTAILUAK

LIBURUAK

ARROPA

Anima zaitez!

LIBRO PUZZLE
LA EXCURSIÓN
Cuentos de bolsillo
SIRENITAS
LOS COMPAS
Y LA AMBULANCIA
MITCHERNACK